



BAZTAN BALLEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y
UNIVERSIDAD DE BAZTAN (Nafarroa - Navarra)

MEREZIMENDU TURISTIKOARI BRONTZEZKO SARIA
PLACA DE BRONCE AL MERITO TURISTICO

HERRIAK - LUGARES: ELIZONDO (BALLEKO UDALETXEA)
ALMANDOZ, ANZ, ARIZKUN, APPAKOZ, AZPILKUETA, BERROETA,
ZIGA, ELBETE, ERRATZU, GARTZAIN, IRURITA, LEKAROZ
AMAIUR / MAYA eta OROÑOZ.

2012ko ABENDUAren 27ko OHIKO OSOKO BILKURA
SESION PLENARIA ORDINARIA DE 27 DE DICIEMBRE DE 2012

14.1.- Baztango Herrera. Presoak

Mozioa behin azalduta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Alkateak bilkura honen espedientean 14.1 puntu bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du.

Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra eta NA-BAI (2011)

Kontrakoak 5, UPN

Udalbatzak mozioa onesten du.

14.1.- Baztango Herrera. Presos

Explicada la mocion, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, alcaldía llama a votar la aprobacion de la moción, que consta como punto 14.1 en el expediente de la presente sesión:

A favor 8 , Bildu, Baztango Ezkerra y NA-BAI (2011)

En contra 5, UPN

El pleno del ayuntamiento aprueba la moción



O.B. - ALKATEA - IDAZKARIA

Urteetan eta sufrimenduan gehiegi luzatu den gatazka egoera atzean utzi eta denen artean bake egoera justu bat eraikitzeko aukera berriak zabalik dira Euskal Herrian.


14.1.

Euskal Herriko eragileen arteko elkarrizketa eta akordioek, Donostian burutu zen nazioarteko bake konferentzia eta ETAk behin betiko armak uzteko erabakiak euskal gatazka konpontzeko bidea ireki dute.

Gatazkaren ondorioak askotarikoak dira eta denek behar dute konponduak izan.

Zentzu honetan, eta konponbidean aitzin egiteko, gatazkaren ondorioz preso eta erbestean dauden herritarren egoeran arreta jartzea beharrezkoa izanen da. Euskal Herriatik ehunaka kilometrotara sakabanatuak daude oraindik orain, eta honek ondorio latzak dakartza, bai preso eta erbesteratuentzat, bai hauen senideentzat.

Lehen urrats bezala beharrezkoa ikusten dugu presoek dagozkien oinarrizko giza eskubideak errespetatuak izatea.



-Euskal presoak Euskal Herriratzea.

-Gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea.

-Espetxe zigorren luzatzearekin amaitu eta "de facto" bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten neurrien derogazioa.

-Pertsona bezala dagozkien giza eskubide guztien errespetua.

Aldarrikapen hauei bultzada bat eman eta bide honetan frantziar zein espainiar gobernuetara urratsak eskatzeko manifestaldi haundi bat burutuko da Bilbon, urtarrilaren 12an.

Hau horrela izanda, Udaleko Udaltzari honako erabaki hauek har ditzan eskatzen diogu:

1-Baztango Udalak Bilbon burutuko den Herri Mobilizazio Orokorrekin bat egiten du.

2-Baztango Udalak baztandar guztiei Bilboko manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen die.

3-Udal honek, erabaki hauek herritarren jakinaren gainean jartzeko konpromezua hartzen du. Hortarako BANDO bat argitaratuko du eta komunikabideei akordio hau helaraziko die.